

2006
Koaderno
sindikalak
Ekonomikoa

Euskal Herriko
2005. urteko
egoera
sozioekonomikoa



Formazioa

Euskal Herriko 2005. urteko egoera sozioekonomikoa

Aurkibidea

AURKEZPENA

1.- ALDI BATERAKOTASUNA SEKULA IZAN DUEN MAILARIK ALTUENERA IRITSI DA

- 1.1.- 2005KO URTEAN SINATURIKO KONTRATUEN 92,6% ALDI BATERAKOA IZAN ZEN.
- 1.2.- IRAUPEN JAKINEKO ALDI BATERAKO KONTRATUAK: LAN ERROTazio MAILA JASANGAITZAK.

2.- SORTZEN ARI DEN ENPLEGUA OSO PREKARIOA DA

- 2.1.- EMAKUMEAK DIRA LANGABEZIAN DAUDEN GIZATALDE UGARIENA.
- 2.2.- EUROPA OSOKO LAN MERKATURIK EZEGONKORRENA.
- 2.3.- LAN ERREFORMAK: EUSKAL LANGILEGOAREN ESKUBIDEEI ETENGABEKO MURRIZKETAK.

3.- GIZARTEAREN AURKAKO ERREFORMAK IPAR EUSKAL HERRIAN

- 3.1.- ESTATU FRANTSESAK PREKARITATEA BULTZATZEN DU KONTRATAZIO MUGAGABEAN.
- 3.2.- LEHEN LAN KONTRATUA: PREKARITATEA GAZTEENTZAT.
- 3.3.- LANERAKO GUTXIENEN ADINAREN MURRIZKETA.

4.- ERANSKIN ESTATISTIKOA

- 4.1.- HEGO EUSKAL HERRIKO LAN MERKATUA. 2005EKO EPA (URTEKO BATAZ BESTEKO).
- 4.2.- HEGO EUSKAL HERRIAN ERREGISTRATURIKO KONTRATUAK.
- 4.3.- ERREGISTRATURIKO KONTRATUAK (PORTZENTAJE BERTIKALAK).
- 4.4.- ERREGISTRATURIKO KONTRATUAK (PORTZENTAJE HORIZONTALAK).
- 4.5.- EAE-KO SOLDATAPEKO BIZTANLEGOA, KONTRATU MOTAREN ARABERA.
- 4.6.- NAFARROAKO SOLDATAPEKO BIZTANLEGOA, KONTRATU MOTAREN ARABERA.



Aurkezpena

Koaderno sindikal honetan, Euskal Herriko egoera sozioekonomikoari buruz LAB sindikatuko Idazkaritza Ekonomikoak urtero burutzen duen informea argitaratzen dugu, kasu honetan 2005 urtekoa.

Datuak berriro ere argiak dira. Aldi baterako kontratazioa da lan harremanak prekariatzeko tresna garrantzitsua eta patronalak iruzur eginaz erabiltzen du mozkinak maximotzeko. 2005. urtean zehar sinaturiko kontratuen %92,6 aldi baterakoak izan ziren eta kontratuen %77ak ez zuen hiru hilabeteko iraupena ere gainditu. Emakumeek ez dute aldikotasun tasa handiagoa soilik jasaten, lan postu bat lortzeko gizonaek baino zailtasun gehiago ere badituzte.

Informean salatzen den moduan, enpleguak duen ezegonkortasun maila honek, patronalak gure erreibindikazio ahalmenari aurre egiteko erabiltzen dituen etengabeko esplotazio eta txantaia baldintzak sortzen ditu.

Gainera, Euskal Herrian, Madril eta Parisen buruturiko eta euskal langilegoaren eskubideen etengabeko gutxikuntza suposatzen duten lan erreformen ondorioak jasaten ari gara. Horren adibide dira Estatu frantsesak kontratazio prekario berrien bidez harturiko neurriak: enplegu berrietarako kontratua eta lehen lan kontratua. Gobernu frantsesak enpleabilitate helburua ezartzen du langileen eskubide eta enpleguaren kalitatearen ginetik.


Azkenik, gai sozioraboretan erabakitzeko ahalmena izateko lan harremanetarako euskal esparruaren beharra azpimarratu beharra dago berriro ere. Kanpo injerentziarik gabe Euskal Herriko langileen eskubideak bermatuko dituen lan harreman eredu eraikitzean datza.

1. Aldi baterakotasuna sekula izan duen mailarik altuenera iritsi da

1.1.- 2005. urtean sinaturiko kontratuen %92,6 aldi baterakoa izan zen.

2005. urtean zehar 1.036.103 lan kontratu erregistratu ziren Enplegurako Zerbitzu Publikoek Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan dituzten bulegoetan. Honen ondorioz, kontratazio bolumena %3,2 hazi zen iazko urtearekin alderatuz gero. Baina aldi baterako kontratuen hazkundea handiagoa izan zen kontratu mugagabeena baino.

2005. urtean sinaturiko aldi baterako kontratu kopurua %3,3 gehitu zen iazko urtearekin alderatuz gero; eta kontratazio mugagabea, aldiz, %2,6 soilik handitu zen. Beraz, zabaltzen ari dira aldi baterakotasuna eta lan postuen errotazio maila altua. 2005. urtean sinaturiko kontratuen %92,6 aldi baterakoa izan zen.



Kontratu mugagabeak kontratazio osoaren %7,4 izan ziren, aldi baterakoen bihurtzetik eratorriak barne. Baina emakume eta gazteen kasuan kontratu mugagabeen pisua are eta txikiagoa da. Emakumeek sinaturiko kontratuen %6,7 soilik izan ziren mugagabeak, eta 25 urte baino gutxiagokoen artean %4,8. Gizonezkoen zuzenduriko kontratu mugagabeen portzentaia, aldiz, zerbait altuagoa izan zen, %8,2 hain zuzen ere.

Bestalde, azpimarratu beharra dago iaz sinaturiko kontratu mugagabeen artean, %75,3 aldi osoak izan zirela, %20,9 aldi partzialekoak eta gainerantzeko %3,8 aldizkakoak.

Kontratu mugagabeak – 2005 urtea

Guztira	Aldi osoa	Aldi partziala	Aldizkakoak
%100	%75,3	%20,9	%3,8

Aldi baterako kontratu mota desberdinen artean, ekoizpenagatikoa eta obra eta zerbitzuko dira garrantzitsuenak. Bi mota hauek, hurrenez hurren, kontratazio osoaren %39 eta %34 ordezkatzzen dute.

Bi kontratu mota hauen baturak, 2005. urtean erregistraturiko aldi baterako kontratazioaren %79 suposatzen du, eta hauek dira iruzur egiteko gehien erabiltzen diren kontratu motak. Hauek erabiliaz sinatzen den kontratu kopuru handia ez dator bat ez ekoizpen ihardueren izaerarekin eta ezta erabiltzen diren ihardueren iraupenarekin ere.

Hauen atzetik kontratu mota erabiliena bitartekoena da, kontratazio osoaren %16,8 ordezkatzuz. Baina emakumeen kasuan kontratu honek garrantzia handiagoa du, izan ere, emakumeei zuzenduriko lau kontratatik bat bitartekoa da.


Prestakuntzako kontratuak (formakuntzarako kontratua eta praktika kontratua) kontratazio osoaren %1 baino zertxobait gehiago suposatzen dute; beraz, esan daiteke oso erabilera murrizta dutela, baita gazteen artean ere, kontratazio osoaren %3 baino gutxiago ordezkatzzen baitute.

Ordezkapen kontratu eta erretiro partzialeko kontratuen erabilera ere oso urria da, eta bien baturak kontratazio osoaren %1 besterik ez du ordezkatzzen.

1.2.- Iraupen jakineko aldi baterako kontratuak: lan errotazio maila jasangaitzak.

Aldi baterako kontratazioan gehiago sakontzeko interesgarria da kontratu hauen iraupena aztertzea, ezaugarri honek aldi baterako kontratuen izaera prekariora asko larritzen baitu.

Iraupen jakina eta sinatzeko orduan ezaguna duten aldi baterako kontratuen %77ak ez zituen hiru hilabete gainditzen eta %97,8ak 12 hilabete baino gutxiagoko iraupena zuen. Zifra hauek lan errotazio maila jasangaitza argi eta garbi uzten dute.



Laneko ezegonkortasun maila honek, patronalak langileen eskaerei aurre egiteko erabiltzen dituen esplotazio eta txantaila baldintzak sortzen ditu. Baldintza hauetan, esperientzia lortzea eta karrera profesional bat aurrera eramatea ezinezkoa da. Gainera, lan errotazioa istripu tasa handiagoekin loturik dago.

ABLE kontratuen bilakaerari dagokionez, abuztu arterako datuak soilik ditugu, eta hauen arabera langileak lagatzeko 135.225 kontratu erregistratu ziren urteko lehenengo zortzi hilabetetan. Honek, %3,6ko hazkundea suposatzen du iazko epe berdineko datuekin alderatuz gero.

Beraz, laburbilduz, Hego Euskal Herrian 2005. urtean 370.000 pertsona inguru bizi izan dira lan egoera oso prekarioan, langabezia egoerak aldi baterako enpleguekin aldizkatuz.

Lan baldintza hauen ardura, neurri handi batean, patronal pribatuak du, kontratazio iruzurra erabili baitu lan merkatua malgutu eta esplotatzeko. Baina zerbitzuen kanporatze eta azpikontratazioaren ondorioz sektore publikoan gertatu den aldi baterakotasunaren gehikuntzan administrazio publikoek ere badute erantzunkizuna.

2. Sortzen ari den enplegua oso prekariora da

2.1. - Emakumeak dira langabezian dauden gizatalderik ugariena

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2005. urtean, Hego Euskal Herrian, batez beste, 1.232.650 landun zeuden. Landunen kopuru hau iazko batez bestearekin alderatuz, ikus daiteke enplegua ia 50.000 pertsonetan handitu zela, hots, %4,2 inguruan.

Honez gain, emakumeen enplegua, batez beste, 31.875 lagunetan areagotu zen; bien bitartean, gizon-landunak 17.950 lagunetan areagotu zen. Hortaz, esan daiteke emakumeen enplegua gizonezkoen enplegu-mailara hurbiltzen ari dela. Hala ere, oraindik bide luzea dago bateratze osoa eta baldintza berdinetan lanari ekin ahal izana lortzeko.

Bestalde, azpimarratu, langabezia-tasa orokorra, batez beste, %7koa izan zela 2005ean. Honek esan nahi du, iaz, Hego Euskal Herrian, batez beste, 92.275 langabetu zeudela, hots, aurreko urtearekiko alderatuz, 22.100 langabetu gutxiago.

Baina halakoetan, gizonak hobekien ateratzen dira: gizonezkoen langabezia 13.275 lagunetan urritu zelako eta aldiz, emakumezkoena 8.850 lagunetan.

Honen ondorioz, langabetu gehienak emakumeak dira: langabetuen %55,72 direlako, eta gizon-langabetuak gainontzeko %44,28a delako.

Hala ere, adierazi behar da ere, emakumeen langabezia gizonena baino hedatuagoa dagoela. Gertakari hau frogatu daiteke iraupen luzeko langabezia-datuak alderatzerakoan. 2005. urtean, emakume-langabetuen %33,84a iraupen luzeko langabetuak ziren, urte bat baino gehiago lan bila eta topatu gabe zebiltzan emakumeak. Gizonei dagokienez, iraupen luzeko langabeziak gizon-langabetuen %23,73ari eragin zion.

Egoera honek ezagutarazten digu emakumeek lanpostua bilatzeko garaian, gizonek baino zailtasun handiagoak topatzen dituela. Horren kariaz, langabezia-sariak jasotzen dituzten emakumeen portzentajea langabezian dauden gizonena baino txikiagoa da.

2.2.- Europa osoko lan merkatuak ezegonkorrena eratu du

Salatu behar dugu, sortzen ari den enplegua lan baldintza ezegonkorrak sortzean oinarritzen ari dela. Baldintza hauek bereziki larriak dira emakume eta gazteen artean; hauen artean, behin-behinekotasuna arront handitu da.

Zehatz-mehatz esatearren, Hego Euskal Herrian, 2005. urtean sortu den soldatako enpleguaren %75a aldi batekoa da. Honela, behin-behinekotasun-tasa %28 arte handitu da, hots, aurreko urtekoa baino puntu batean ia. Behin-behinekotasun-tasa hau, Espainiakoaren atzetik, Europako handiena da, eta Europako Batasunaren batez bestea bikoizten du.

Behin-behinekotasun tasa EB-n 2005eko 2. hiruhilekoan.

%	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Espainia	33,3	31,6	35,5
Hego Euskal Herria*	28,0	24,6	32,5
Polonia	25,5	26,3	24,6
Portugal	19,5	18,7	20,3
Finlandia	18,1	14,4	21,7
Eslovenia	17,0	16,0	18,1
Suedia	16,2	14,5	17,9
Herbehereak	15,0	13,7	16,6
EB - 25	14,3	13,9	14,9
Alemania	13,8	14,0	13,6
Zipre	13,8	8,5	19,6
Frantzia	13,3	12,5	14,2
Italia	12,4	10,6	14,8
Grezia	12,1	10,2	14,7
Danimarka	9,9	8,9	11,0
Belgika	9,1	6,7	12,0
Austria	8,8	8,8	8,8
Txekiar Errepublika	8,7	7,8	9,7
Letonia	8,7	11,4	6,0
Hungaria	7,2	7,8	6,5
Erresuma Batua	5,5	5,1	5,9
Lituania	5,1	6,9	3,3
Eslovakia	5,0	5,1	4,9
Malta	3,9	3,2	5,5
Estonia	3,2	4,1	2,5
Irlanda	2,5	2,4	2,7
Luxemburg	-	-	-

*Hego Euskal Herriko datuak 2005. urteko batez besteari dagozkie.

2.3.- Lan erreformak: euskal langilegoaren eskubideen etengabe-ko murrizketak

Zalantzarik gabe, ugazaben esku dagoen behin-behinekotasuna lan-malgutasun eta lehiatze tresna bilakatu da; oso erabilgarria gertatu da hauen mozkinak areagotzeko. Baina ez da kasualitatea Espainiako behin-behinekotasuna, inguruko beste herrialde-ekiko alderatuz, neurritz gaineke tasa honetara iritsi bada.

PSOE eta PP-ren Gobernuek alderdi sozio-laboralean egin dituzten egitura-erreformek eratu duten lan-merkatuan, prekarietateak erabateko nagusitasuna du. Egun, Gobernu zentralaren, ugazaben eta CCOO eta UGT sindikatuen arteko elkarriketal-diak jasaten dituen zailtasunak zailtasun, oraindik orain, ez da uxatu euskal langileria-

ren lan-eskubideak berriro murriztuko dituen erreforma berri handi baten arriskua.

Ez dezakegu Madrileko eztabaida-mahaietan prestatzen dituzten traizio eta ezarpenen zain etengabe iraun. Ezinbestekoa da burujabetzaren aldeko estrategia sendotzea, besteak beste, arlo sozio-laboralean araudiak egiteko ahalmen osoa izan dezagun. Lan-harremanetarako esparrua honela eraiki dezakegu bakarrik: kanpoko eragina alde batera utzita, Euskal Herriko langileen eskubideak bermatuz.

Behin-behinekotasun tasa 2005. urtean

	Orokorra	Gizonak	Emakumeak	Gazteria
Hego E.H.	%28,0	%24,6	%32,5	%70,8
EB- 25	%14,3	%13,9	%14,9	%40,3

* EB-25-aren datuak 2005eko bigarren hiruhilekoari dagozkio.

3. Gizartearen aurkako erreformak Ipar Euskal Herrian

3.1.- Frantziako estatuak, kontratazio ez-mugatuaren bidez, prekaritatea bultzatzen du

Eskuma gobernura iritsi denetik, hamaikaxko laneko erreforma eragin ditu. Erreforma hauek, oro har, langile-riaren, eta bereziki, gazteriaren gizarte eta laneko eskubideak, pixkanaka, desgiteko arriskuan jartzen dituzte.

Hauen lehenengo xedea 35 orduetako legearen erabilera praktikoa baliogabetzea izan zen. Orain, ordu estrei ezartzen zaien zergapetzea murriztuko dela iragartzen da: lanaldiaren luzapena sustatzeko.

Baina Pariseko gobernua honekin pozik ez, oraingoan, irazpena desarautuz lan-merkatua malgutzea erabaki du. Honela, joan den udaran, kontratu ez mugatu eta malgu berria sortzea onetsi zuen. Aipatu kontratua 20 langile baino gutxiago duten enpresa txikiei zuzendua dago. Enplegu Berrietarako Kontratua izena eman diote (CNE¹).

CNE ereduak bi urteko "probaldia" aurreikusten du (honi ere, "enplegua finkatzeko aldia" esaten zaio). Aldi honetan, kontratua deusezta daiteke inolako azalpenik eman gabe. Enpresaren betebeharrak bakarrik irazpenaren aurreabisua idatziz eta bi aste edota hilabete bateko aurrerapenez ematera murrizten da, beti ere, antzintasuna sei hilabete baino txikiagoa edota handiagoa bada.

Birritan aipatu da eredu ez-mugatu berri honek bi urtera handitzen duela

probaldia, baina, berez, lege-amarrua da; kontratua indarrean dagoen lehenengo bi urtean irazpen librea uzteko amarrua. Honela, "probaldia" guztiz urardotzen da: kontratatu den pertsonaren gaitasunak egiaztatze behar den zentzuzko aldia gainditzen duen iraupena ematean, xede bera galtzen delako.

Kontratua deuseztatu aurretik jasotzen zen ordainketa gordinaren %8 batekin kitatzen da irazpena. Dena den, azpimarratu, kopuru honen kalte-ordainketa aldi jakin baterako behin-behineko kontratua amaitu ondoren lortzen dena baino txikiagoa dela (%10).

Litekeena da kontratu honekin lan-merkatuaren sartze eta irtete mekanismoak malgutu nahi izana enplegua sor eta langabezia murrizt dadin. Baina ez dezakegu onetsi enplegua edonola sortu ahal izana, eta are gutxiago, langilearen lan-baldintzak ezegonkortuz egiten bada. Hau nahiz eta kontratazio ez mugatuz hartzen bada ere, aldi baterako kontratazio berak baino askoz ere zalantza eta malgutasun maila handiagoa sortzen du.

Kontratu berriaren beste alderdi kaltegarria lanpostu bera betetzeko kontratuak iruzurrez gerta daitezkeela aurreikusteko neurri eraginkorrik ez izatea da. Iraitzi duten langilea iraitzi zutenetik hiru hilabete igarotzen ez diren bitartean, berau berriro kontratatzea galarazten da, baina murrizketa hau guztiz eznahikoa da. Nahikoa izango da aipatu epea ahitzen uzten badugu, edo bestela, beste norbait kontratatu enplegua

¹ Contrat Nouvelles Embauches.

ez dadin ez-mugatutzat har eta iraitzeko bermea izan dezagun aurrerantzean ere.

Hortaz, iruzurrezko kontratuen loturak eragotziko du aipatu lanpostuak enplegu ez-mugatutzat finka dadin: lotuko dituzten kontratuak, ez dutelako inoiz bi urteko iraupena gaindituko.

Honez gain, kontuan hartzen badugu Ipar Euskal Herrian, gutxi gorabehera, enpresen %97ak 20 langilerik ez duela, litekeena da CNE berria arrunt erabiliko dela. Kontratu mota hau hedatzearen ondorioz, laneko prekaritatea aldi baterako kontratazioa gaindituko duen eta kontratazio ez-mugatuan ere kokatuko den prozesua ikusiko dugu.

3.2.- lehen lan kontratua: prekaritatea gazteentzat

Geroztik, otsailaren 8an hain zuzen, Nazio-Biltzarrak gazteriarri zuzendutako kontratu mota berri bat sortzea onetsi zuen: lehen lan kontratua. Aipatu lehen lan kontratuaren bitartez 26 urte bete ez duten gazteak kontratatu nahi dira, baina 20 langile baino gehiago duten enpresetan erabili ahal izango da bakarrik; CNEko modalitatean kontrata ez daitekeen horietan hain zuzen.

Lehen Lan Kontratuak enplegua finkatzeko bi urteko aldia ezartzen du. Bi urte hauetan, askatasun osoz eta justifika dezakeen inolako ziorik gabe, bidal dezakete langilea lanetik. Aldiz, eta Enplegu Berrietarako Kontratua ez bezala, Lehen Lan Kontratuak ez du kaleratzeak eragindako kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik jasotzen. Bestalde, patronala zergak ordaintzetik salbuesten dute, eta honela, soldata-kosteak nabarmenki murriz ditzake (enpresarien atsekabeen arazo nagusia).

Gobernuak justifikatu du gazteentzako "kontratu zabor" hau ezarri izana hauek lanean txertatzearen beharra argudiatuz; berez, eta dirudienez, ekimen honen bidez, ugazaba asegaitzen menpean legokeen eskulan merkeko "armada" sortu nahi dutenean. Hortaz, Frantziako gobernuak enplegu gehiago sortzeko xedea lehenesten du pertsonen duintasuna eta enplegu kalitatearen gainerik.

3.3.- Laneko gutxieneko adinaren murrizketa

Era berean, Villepinen gobernu kontserbadoreak erabaki du ikastun-kontratuak 14 urtetik aurrera sinatzeko aukera ematea; honek egitez murrizten du legeak lana egiteko eskatzen duen gutxiengo adina 16 urtetik 14 urtera.

Aintzat hartuz enpresetan ikastaldiak egitean egiten diren gehiegikeriak, erabaki hau nerabeen aurka eta jakinaren gainean egindako erasotzat hartu behar da. Eta nahiz eta teoriarez, derrigorrezko eskolatzeari 16 urte bete arte eutsiko zaion, praktikan, auzo txiroenetako gazteriarri zapuztuko dizkiote heziketa akademikoa eta lanbide heziketa. Honela, oso gazterik, prestakuntzarik gabeko lan-indar gisa sartu behar izango dute lan-merkatua.

4. Eranskin estatistikoa

4.1.- Hego Euskal Herriko lan merkatua Epa – 2005 (urteko batz bestekoa)

SEXU BLOK	2005	2004	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	1.232.650	1.182.775	49.875	Guztira	996.125
LANGABETUAK	92.275	114.375	-22.100	Mugagbk.	717.025
AKTIBOAK	1.324.925	1.297.150	27.775	Aldi bater.	279.100
LANGABEZI TASA	7,0	8,8	-1,9		
ENPLEGU TASA	53,5	51,6	1,9	LANGABEZIAN	
IHARDUERA TASA	57,5	56,6	0,9	Urtebete +	27.150
ALDIKOTASUN TASA	28,0	27,2	0,8	2 urte +	14.500
16 urtetik gorako biztanleria	2.304.825	2.293.325	11.500		

EMAKUMEAK	2005	2004	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	509.300	477.425	31.875	Guztira	429.225
LANGABETUAK	51.425	60.275	-8.850	Mugagbk.	289.750
AKTIBOAK	560.725	537.700	23.025	Aldi bater.	139.475
LANGABEZI TASA	9,2	11,2	-2,0		
ENPLEGU TASA	43,2	40,7	2,5	LANGABEZIAN	
IHARDUERA TASA	47,5	45,8	1,7	Urtebete +	17.400
ALDIKOTASUN TASA	32,5	32,8	-0,3	2 urte +	9.450
16 urtetik gorako biztanleria	1.179.325	1.173.075	6.250		

GIZONAK	2005	2004	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	723.375	705.425	17.950	Guztira	566.875
LANGABETUAK	40.875	54.150	-13.275	Mugagbk.	427.275
AKTIBOAK	764.250	759.575	4.675	Aldi bater.	139.600
LANGABEZI TASA	5,3	7,1	-1,8		
ENPLEGU TASA	64,3	63,0	1,3	LANGABEZIAN	
IHARDUERA TASA	67,9	67,8	0,1	Urtebete +	9.700
ALDIKOTASUN TASA	24,6	23,0	1,6	2 urte +	5.025
16 urtetik gorako biztanleria	1.125.500	1.120.250	5.250		

GAZTEAK (< 25 urte)	2005	2004	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	94.625	89.825	4.800	Guztira	86.875
LANGABETUAK	20.950	25.475	-4.525	Mugagbk.	25.400
AKTIBOAK	115.575	115.300	275		
LANGABEZI TASA	18,1	22,1	-4,0		
ENPLEGU TASA	37,2	33,7	3,4	LANGABEZIAN	
IHARDUERA TASA	45,4	43,3	2,1	Urtebete +	3.100
ALDIKOTASUN TASA	70,8	67,6	3,2	2 urte +	1.375
16 urtetik 25era	254.625	266.425	-11.800		

Iturria: INE

4.2.- Hego Euskal Herrian erregistraturiko kontratuak 2005 urtea

KONTRATU MOTA	GUZTIRA	LEHEN S.	INDUST.	ERAIKUN.	ZERB.	GIZONAK	EMAKUM.	GAZTEAK
MUGAGABE ARRUNTA (1)	22.414	915	4.135	1.855	15.509	14.680	7.734	3.653
MINUSBALIATUAK	445	5	82	54	304	318	127	40
SUSTAPENETAKOAK	17.162	199	2.511	1.129	13.323	5.082	12.080	2.828
MUGAGABE BIHURTZEAK	36.755	327	9.491	3.487	23.450	21.703	15.052	7.897
MUGAGABE GUZTIA	76.776	1.446	16.219	6.525	52.586	41.783	34.993	14.418
OBRA EDO ZERBITZUA	352.710	10.587	37.124	74.883	230.116	214.709	138.001	100.852
EKOIZPENETAKOAK	405.053	4.304	45.183	15.913	339.653	197.523	207.530	138.789
BITARTEKOAK	173.656	478	8.954	1.277	162.947	39.869	133.787	38.310
MINUSBALIATUAK	1.201	3	431	62	705	792	409	116
LANEAN TXERTATZEKOAK	52	0	0	0	52	20	32	3
ORDEZKAPENA (64 URTE)	108	1	30	19	58	76	32	9
ERRELEBU-KONTRATUAK	5.048	13	2.947	262	1.826	3.813	1.235	978
ORDEZKAPEN PARTZIALA	5.045	16	2.911	261	1.857	4.272	773	0
PRAKTIKAK	8.726	14	2.294	991	5.427	4.995	3.731	5.854
PRESTAKUNTZAKOAK	3.375	11	407	919	2.038	2.106	1.269	2.594
GAINONTZEKOAK	4.353	287	251	64	3.751	2.253	2.100	769
ALDI BATERAKO GUZTIAK	959.327	15.714	100.532	94.651	748.430	470.428	488.899	288.274
KONTRATUAK GUZTIRA	1.036.103	17.160	116.751	101.176	801.016	512.211	523.892	302.692

Iturria: INEM

(1) Sustapen neurriei lotuta ez dauden aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finakoak barne.

(*) Aldi baterako mota bakoitzak, berari dagozkion aldi partzialeko kontratuak kontutan hartzen ditu.

4.3.- Hego Euskal Herrian erregistraturiko kontratuak (portzentaje bertikalak) 2005 urtea

KONTRATU MOTA	GUZTIRA	LEHEN S.	INDUST.	ERAIKUN.	ZERB.	GIZONAK	EMAKUM.	GAZTEAK
MUGAGABE ARRUNTA (1)	%2,2	%5,3	%3,5	%1,8	%1,9	%2,9	%1,5	%1,2
MINUSBALIATUAK	%0,0	%0,0	%0,1	%0,1	%0,0	%0,1	%0,0	%0,0
SUSTAPENETAKOAK	%1,7	%1,2	%2,2	%1,1	%1,7	%1,0	%2,3	%0,9
MUGAGABE BIHURTZEAK	%3,5	%1,9	%8,1	%3,4	%2,9	%4,2	%2,9	%2,6
MUGAGABE GUZTIAK	%7,4	%8,4	%13,9	%6,4	%6,6	%8,2	%6,7	%4,8
OBRA EDO ZERBITZUA	%34,0	%61,7	%31,8	%74,0	%28,7	%41,9	%26,3	%33,3
EKOIZPENETAKOAK	%39,1	%25,1	%38,7	%15,7	%42,4	%38,6	%39,6	%45,9
BITARTEKOAK	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0
ERRELEBU-KONTRATUA	%0,5	%0,1	%2,5	%0,3	%0,2	%0,7	%0,2	%0,3
ORDEZKAPEN PARTZIALA	%0,5	%0,1	%2,5	%0,3	%0,2	%0,8	%0,1	%0,0
PRAKTIKAK	%0,8	%0,1	%2,0	%1,0	%0,7	%1,0	%0,7	%1,9
PRESTAKUNTZAKOAK	%0,3	%0,1	%0,3	%0,9	%0,3	%0,4	%0,2	%0,9
GAINONTZEKOAK	%0,4	%1,7	%0,2	%0,1	%0,5	%0,4	%0,4	%0,3
ALDI BATERAKO GUZTIAK	%92,6	%91,6	%86,1	%93,6	%93,4	%91,8	%93,3	%95,2
KONTRATU GUZTIAK	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100

Iturria: INEM

(1) Sustapen neurriei lotuta ez dauden aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finakoak barne.

(*) Aldi baterako mota bakoitzak, berari dagozkion aldi partzialeko kontratuak kontutan hartzen ditu.

4.4.- Hego Euskal Herrian erregistraturiko kontratuak (portzentaje horizontalak) 2005 urtea

KONTRATU MOTA	GUZTIRA	LEHEN S.	INDUST.	ERAIKUN.	ZERB.	GIZONAK	EMAKUM.	GAZTEAK
MUGAGABE ARRUNTA (1)	%100	%4,1	%18,4	%8,3	%69,2	%65,5	%34,5	%16,3
MINUSBALIATUAK	%100	%1,1	%18,4	%2,1	%68,3	%71,5	%28,5	%9,0
SUSTAPENETAKOAK	%100	%1,2	%14,6	%6,6	%77,6	%29,6	%70,4	%16,5
MUGAGABE BIHURTZEAK	%100	%0,9	%25,8	%9,5	%63,8	%59,0	%41,0	%21,5
MUGAGABE GUZTIAK	%100	%1,9	%21,1	%8,5	%68,5	%54,4	%45,6	%18,8
OBRA EDO ZERBITZUA	%100	%3,0	%10,5	%21,2	%65,2	%60,9	%39,1	%28,6
EKOIZPENETAKOAK	%100	%1,1	%11,2	%3,9	%83,9	%48,8	%51,2	%34,3
BITARTEKOAK	%100	%0,3	%5,2	%0,7	%93,8	%23,0	%77,0	%22,1
MINUSBALIATUAK	%100	%0,2	%35,9	%5,2	%58,7	%65,9	%34,1	%9,7
LANEAN TXERTATZEKOAK	%100	%0,0	%0,0	%0,0	%100,0	%38,5	%61,5	%5,8
ORDEZKAPENA (64 URTE)	%100	%0,9	%27,8	%17,6	%53,7	%70,4	%29,6	%8,3
ERRELEBU-KONTRATUAK	%100	%0,3	%58,4	%5,2	%36,2	%75,5	%24,5	%19,4
ORDEZKAPEN PARTZIALA	%100	%0,3	%57,7	%5,2	%36,8	%84,7	%15,3	%0,0
PRAKTIKAK	%100	%0,2	%26,3	%11,4	%62,2	%57,2	%42,8	%67,1
PRESTAKUNTZAKOAK	%100	%0,3	%12,1	%27,2	%60,4	%62,4	%37,6	%76,9
GAINONTZEKOAK	%100	%6,6	%5,8	%1,5	%86,2	%51,8	%48,2	%17,7
ALDI BATERAKO GUZTIAK	%100	%1,6	%10,5	%9,9	%78,0	%49,0	%51,0	%30,0
KONTRATU GUZTIAK	%100	%1,7	%11,3	%9,8	%77,3	%49,4	%50,6	%29,2

Iturria: INEM

(1) Sustapen neurriei lotuta ez daude aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finkoak barne.

(*) Aldi baterako mota bakoitzak, berari dagozkion aldi partzialeko kontratuak kontutan hartzen ditu.

4.5.- EAE-ko soldatapeko biztanlegoa, kontratu motaren arabera .2005-eko batz bestekoa

	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	Guztira	Gizonak	Emakum.	Guztira	Gizonak	Emakum.	Guztira	Gizonak	Emakum.	Guztira	Gizonak	Emakum.
GUZTIRA												
Kontratu mugagba.	%70,6	%75,3	%64,5	%74,9	%81,0	%66,8	%69,6	%74,1	%63,7	%70,1	%74,4	%64,8
Aldi bater. kontr.	%25,6	%23,2	%28,8	%22,8	%18,3	%28,7	%26,1	%23,8	%29,1	%26,2	%24,6	%28,3
Besteak	%3,8	%1,5	%6,7	%2,3	%0,7	%4,6	%4,3	%2,1	%7,2	%3,6	%1,0	%6,9
16tik 24 urtetara												
Kontratu mugagba.	%30,2	%30,7	%29,3	%40,2	%40,9	%39,5	%28,1	%30,0	%25,7	%27,6	%26,2	%29,1
Aldi bater. kontr.	%64,6	%65,6	%63,4	%56,2	%57,4	%55,3	%65,7	%65,4	%66,7	%67,3	%70,2	%63,7
Besteak	%5,2	%3,7	%7,1	%3,5	%2,1	%5,3	%6,1	%4,6	%8,0	%5,1	%3,4	%7,1
25etik 44 urtetara												
Kontratu mugagba.	%66,7	%70,5	%62,3	%72,8	%78,8	%65,5	%65,0	%68,3	%61,0	%66,6	%70,0	%62,8
Aldi bater. kontr.	%29,7	%27,7	%32,1	%25,5	%20,5	%31,4	%30,5	%29,0	%32,3	%30,5	%29,0	%32,1
Besteak	%3,6	%1,8	%5,7	%1,7	%0,6	%3,1	%4,5	%2,6	%6,7	%2,9	%1,0	%5,1
45 urte baino gehi.												
Kontratu mugagba.	%87,2	%92,3	%79,0	%88,9	%94,5	%78,8	%87,2	%91,7	%79,5	%86,5	%92,1	%78,2
Aldi bater. kontr.	%9,0	%7,1	%12,2	%8,1	%4,9	%13,3	%9,3	%7,6	%12,2	%9,1	%7,4	%11,5
Besteak	%3,7	%0,6	%8,8	%3,1	%0,3	%7,8	%3,5	%0,7	%8,2	%4,4	%0,5	%10,1

Iturria: PRA inkesta (EUSTAT)

4.6.- Nafarroako soldatapeko biztanlegoa, kontratu motaren arabera. 2005eko batz bestekoa

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Guztira	217.400	122.675	94.725
Kontratu mugagabea	157.400	93.375	64.025
Aldi baterako kontrat.	60.025	29.350	30.675

%	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Guztira	%100	%100	%100
Kontratu mugagabea	%72,4	%76,1	%67,6
Aldi baterako kontrat.	%27,6	%23,9	%32,4

	Guztira	16tik 24 urtera	25etik 54 urtera	55 urte baino +
Guztira	217.400	21.125	176.350	19.925
Kontratu mugagabea	157.400	7.275	131.725	18.325
Aldi baterako kontrat.	60.025	13.875	44.575	1.625

%	Guztira	16tik 24 urtera	25etik 54 urtera	55 urte baino +
Guztira	%100	%100	%100	%100
Kontratu mugagabea	%72,4	%34,4	%74,7	%92,0
Aldi baterako kontrat.	%27,6	%65,7	%25,3	%8,2

Iturria: EPA inkesta (INE)

